



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 7a

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2017ko azaroaren 7ko bileran,
honako erabaki hau hartu du:

Tramitatzeko onartzea, Jaurlaritzari eta Osoko Bilkura eta Batzordeen Atalari bidaltzea eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Maddalen Iriarte Okiñenak, EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, egindako interpelazioaren ondoriozko mozioa, Kataluniako Errepublika independenteari buruzkoa (11\11\03\00\0039-7181).

Horren berri ematen dizut, Jaurlaritza jakitun egoteko eta hortik aurrerako ondorioetarako.

Bakartxo Tejeria Otermin

IÑIGO URKULLU RENTERIA jaun agurgarria
Jaurlaritzako lehendakaria





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 7 de noviembre de 2017

Excmo. Sr.:

La Mesa del Parlamento Vasco, en su reunión del día 7 de noviembre de 2017, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Admitir a trámite, remitir al Gobierno y a la Sección de Plenos y Comisiones y publicar en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco la moción consecuencia de interpelación formulada por D.^a Maddalen Iriarte Okiñena, parlamentaria del grupo EH Bildu, relativa a la República independiente de Cataluña (11\11\03\00\0039-7181).

Lo que comunico para conocimiento del Gobierno y subsiguientes efectos.

Bakartxo Tejeria Otermin

IÑIGO URKULLU RENTERIA jaun agurgarria
Jaurlaritzako lehendakaria



ehbildu



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Maddalen Iriarte Okiñena EH Bildu Taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondorengo **MOZIOA** aurkezten du, gaur bertan Osoko Bilkuran **Kataluniako Errepublika Independenteari buruz** gauzatu den interpelazioaren (11/10/04/01/0095) ondorio dena.

ZIOA:

Eusko Legebiltzarrak adierazi du Kataluniak, Euskal Herriak edota hala nahi lukeen ezein herrik, bere etorkizuna libreki, herritarren borondate soilaren arabera, erabakitzeko eskubidea duela. Kataluniako Parlamentuak eskubide hori baliatu eta Kataluniako Errepublika independentea aldarrikatu du. Erabakia bertako herritarren borondatean oinarritzen den heinean, zilegitasun demokratiko osoa du, urriaren 1eko erreferendumean Estatu espainolaren bortizkeriari eta errepresioari herritarren botoak gailendu zitzaizkielako.

Errepublika independentea aldarrikatuta, Kataluniako Parlamentuak prozesu eratzaille, demokratiko eta parte-hartzailea abiarazi du, eta munduko estatu eta erakundeei dei egin die Errepublika katalana Estatu independente eta burujabe gisa hartzera.

Estatu espainolaren erantzuna, baina, ezin bortitzagoa izan da, Kataluniako autonomian esku hartu eta Puigdemont presidentea buru duen gobernu legitimoko zortzi kide kartzelaratzera iritsi baita.


Hori horrela, are garrantzitsuagoa da Eusko Legebiltzarrak Kataluniako Parlamentuaren deiari modu positiboan erantzutea, eta Kataluniako Errepublika independentea aitortzea.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo mozioa aurkezten dugu Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

MOZIOA

1. Eusko Legebiltzarrak 2017ko urriaren 1ean Katalunian burututako erreferendumaren ondorioz Kataluniako Parlamentuak aldarrikatu duen Kataluniako Errepublika aitortu eta errespetatzen du, zuzenbide Estatu independente, burujabe, demokratiko eta sozial bezala.
2. Eusko Legebiltzarrak ebazpen hau Kataluniako Generalitateari eta Espainiako Gobernuari jakinaraziko die.

Euskal Herrian, 2017ko azaroaren 3an



Maddalen Irarte Okiñena

EH Bilduko bozeramailea

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Maddalen Iriarte Okiñena, portavoz del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente moción consecuencia de la interpelación substanciada en el pleno de hoy, relativa a la República independiente de Cataluña (11/10/04/01/0095).

Justificación

El Parlamento Vasco ha expresado que Cataluña, al igual que Euskal Herria o cualquier otro pueblo que así lo desee, tiene derecho a decidir libremente su futuro, dependiendo únicamente de la voluntad de sus ciudadanos y ciudadanas. El Parlamento de Cataluña ha ejercido ese derecho y ha proclamado la República independiente de Cataluña. Esta decisión, en la medida en que se basa en la voluntad de su ciudadanía, tiene plena legitimidad democrática, ya que en el referéndum celebrado el 1 de octubre los votos de los ciudadanos y las ciudadanas se impusieron a la violencia y a la represión del Estado español.

Una vez proclamada la república independiente, el Parlamento de Cataluña ha puesto en marcha un proceso constituyente, democrático y participativo, y ha hecho un llamamiento a los estados y organizaciones de todo el mundo para que reciban a la República catalana como un Estado independiente y soberano.

Sin embargo, la respuesta del Estado español no ha podido ser más violenta: ha





intervenido la autonomía de Cataluña y ha llegado a encarcelar a ocho miembros del gobierno legítimo presidido por Puigdemont.

Así las cosas, es aún más importante que el Parlamento Vasco responda de forma positiva a este llamamiento del Parlamento de Cataluña, y reconozca la República independiente de Cataluña.

Por todo ello, presentamos la siguiente moción para su debate en pleno.

MOCIÓN

1. El Parlamento Vasco reconoce y respeta la República de Cataluña, proclamada por el Parlamento de Catalunya como consecuencia del referéndum celebrado en Cataluña el 1 de octubre de 2017, como un estado de derecho independiente, soberano, democrático y social.
2. El Parlamento Vasco comunicará este acuerdo a la Generalitat de Cataluña y al Gobierno de España.

En Euskal Herria, a 3 de noviembre de 2017

Maddalen Iriarte Okiñena

Portavoz de EH Bildu

